




ZER
ALDIZKARIA

435. zenbakia
2017 EPAILLA

**Bizkaitarrei
Bizkaieraz**



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

**Kristobal Kolon,
Nafarroako IVn
Karlos erregearen
Semea izan ote zan?**



**Baltzolak
suge-deabrua**



www.euskerazaleak.biz

**1.000.000
BISITARI**

URTEROKO BATZAR NAGUSIA

Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

2016-2017 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 49. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 10an

49. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 10 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

EUSKERA ZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85



Baltzolako suge-deabrua

Juan Manuel Etxebarria Ayesta
Leenengo saria

Negu etorrera baten, urteko leen edur-malutak barruntatuz batera, ardietara joan ziran Paulo eta Pello anaia biak.

Ardiak Dimako Baltzolako kobazuloaren ondoko landan eukiezan, antxe, Jentil-zubi eta Axlora azpiko landa zearetan, eta edurra loditu baino leen etxera edo tejamanara ekarri gura ebezan.

An ebilzan ardiok pilatu naian, bateko txakurrari txistu egin, besteko makila jaso edurrak mara-mara era-goion bitartean.

Aalegin guztiak eginda be, dana zan alperrik. Edurrak, goian-beean, zarratu-zarratu ekiten eutsan eta santiamen baten zuritu zan dana, ardiak ibili ez egiteko moduan.

Ardiei anka meeak edurtzan sartzen jakiezanean, euren artileak edur-bolaz jazten ziran pisuaren pisuaz ibili ezinik itxiaz.

Ardiok leorreratu naiaren ekina begien bistan egoan baina ezina bistarago. Orregatik Paulok ondobearrean badinotso Pello anaia gazteari:

-I, onegaz edurtza onegaz ezingo gozak etxera joan, pentsatu be ez. Orduan, orraxe, Baltzolako kobazulora eroango joaguzak ardiok arik eta lurmendu arte. Zer deritzok?

-Nik neuk ondo! -erantzun eutsan Pellok-. Nire al-dian, ez joat sekula onango edurtzarik ezagutu. Ik bai?

-Obe ez! Ni neu gerrirainoko edurtza be ezagututa niagok, i jaiobarri intzala. Orduan, basabeiak eta zal-diak sartu najoazan ortxe Baltzolako kobazulo orretan. Gaur ardiak egin bearko joaguzak, osterantzean otzak ilgo jozak gesu baten gautu egin bear jok-eta.

Alantxe egin eben. Aidatu ardiok eta danabearrean eldu ziran ardi eta guzti koba-zulo aretara.

Bein kobazuloraz gero, ardiek euren artileak astindu ebezan edur-bolak botateko. Jarraian etzun eta ausnar asi ziran aitz-zuloaren abaroan.

Paulok eta Pellok be euren soinekoei astinaldi bat emon eta gero, ezarri egin ziran koba-zuloaren arratean.

Paulok, sua isiotu eban eta jateko apur bat atera bere zakutotik. Pellok ez eukan soinekoa baino besterik eta esan eutsan:

-I, Paulo, zer dala-eta ekarri dok au guzti au? Jakin egin dok ala gaur gaua emen egin bear joagula?

-Jakin ez -erantzun eutsan Paulok irribarreka-, baina edurragaz kontuz, edurra zuria dala beltza dok eta badaezpada zuur ibiltealakorik ez jagok. Nik neuk be aitagandik

ikasita jaukat eta ik euk be ikasiko dok nire adinera orduko.

Biak bietara, jan eben Paulok eroanda-ko jakia eta kontu kontetan egozan noiz-beinka sugarretan eskuak igurtziz.

Kandela bedeinkatu bat be biztu eban Paulok. Onek beti eroaten eban kandelario egunean bedeinkatutako kandela bedeinkatua aldean, bear zanean isiotuteko, sinesmen andikoa zan-eta.

Loak noiz artuko egozala, Pellok suge andi bat ikusi eban suaren ingurumaritik ardietarantz.

Zutundu egin zan eta surtatik bertatik ilinti andi bat artuz, a suge ikaragarria il-ten joan zan.

-Zertan oa? -itandu eutsan Paulok-

-Suge endemonino bat jagok emen eta il egin bear joat.

-Ez, Pello, ez egik il, ori be Jaungoikoak egina dok-eta!

-Bardin jaustak, il egin bear joat eta kito!

Esan eta egin! Pellok indar guztiaz bota eutsan a ilintia sugea buruan joko ebalakoan, baina, uts egin eban eta buruan barik buztanean jo eta buztan punta kendu.

Sugea estaldu egin jakon koba barruan. Txori-gorri eta guztiak bota eutsazan sugeari koba barruko iluntasunean, baina alperrik, sugearen gerizarik be ez.

Gaua igaro eta eguna zabaldu zanean, Paulok joan-etorri bat egin eban inguruetatik eta esan eutsan Pellori:

-I, egun eguzkitsua egertu dok eta egurdartean ez bada, arrastirako lurmenak agertuko dozak eta joan aal izango gozak astiro-astiro etxera.

Alantxe gertatu zan. Arrastian, artu ardiok eta gau iluntzerako bake bakean egozan etxean ardi bat esan eta bera be galdu barik.

Negu luzea be joan zan eta udabarria etorri zanean, Paulori guda batera joan bearra etorri jakon.

Urrun joan bear izan eban, Luxaondoko Malato arbola baino askoz urrunago. Borondatez kontra baina joan egin bear.

Guda ori luzea izan eta luze egin jakon Paulori, baina alangoren baten akabatu zan gerra ori eta lizentziazteko eguna ailegatu.

Gabon eguna zan. Eguerdi ostean lizentziatu ebezan gudariok. Poza eta algara ez zan falta, baina Paulok, begiak jaso eta esan eutsan bere buruari:

-Ni niagok ona! Gabon arrastia dok eta ez jaukat gaur etxera eltzeko modurik. Aurtengo Gabonak bidean egin bearko joadaz. Baina tira, konformatu egingo nok, gerra onetatik bizirik urten joat-eta.



Ausnarketok eginda, etxerako bidea artu eban Paulok. Oinez etorren bakar kabarririk.

Andik lasterrera gizon ezezagun bat urreratu jakon Paulori eta era onetara berba egin eutsan:

-Zer burutazino darabilk buruan?

-Zein erabiliko joat ba, Gabon gaua etxean egin gurarena! -erantzun eutsan Paulok-.

-Benetan be Gabon gaua eurekaz egin gura dok?

-Ik euk be ez dakik zenbat baino gurago nieunkean Gabon gaua neure etxekoakaz egitea!

-Ori gura badok, plantatu adi apurrin nire neure lepo-bizkarrean eta nik neuk eroango aut airean! Baina, kontuz, kondizio bategaz: egaz goazela ez dok esango "arre deabrua" baino besterik, entzun deustak?

Paulok ezin eban ezer ulertu baina, alde batetik etxera-gogo andia eukanez eta bestetik ari gizon bereziari ezetz esaten ausartzen ez zanez, badinotso:

-Ondo jagok, joango nok. Baina ba al dakik ik ni nongoa nazan?

-Jakingo ez joat ba! Gogoratzen al dok, beinola, i eta ire anaia zelan egon zineen Baltzolako kobazuloan gaua egiten edurtza andi bategaz eta zelan ire anaia Pello a sugea il guran ibili zoan!

-Bai! gogoratuko ez nok ba!

-Ba ikusi egik nire eskua, atzamar txikia falta joat. Auxe dok ire anaiak ilintiagaz kendutako buztan punta. Oraidino ire anaiarenganako berbak ondo gogoan jaukadaz: "bakean izteko sugea be Jaungoikoak egina dala-eta"; orregatik zorrean niagok eta eroango aut Baltzolako kobaraino.

Esan eta egin! Deabruak apurrin artu eban Paulo eta onek "arre deabrua" esanaz batera airean egozan biak.

Gabon egun orretako iluntze aurretixoan eldu ziran Baltzolako koba zuloaren arratera. Paulo guztiz zorabioturik egoan eta bere konortera etorri zanean ezin eban sinistu be egin Baltzolan egoanik.

Deabruak Paulori eutsan zorra obeto bete guran-edo, oneik berbok esaten asi jakon:

-I, Paulo, ator kobazulora barrura, or barruan zeozer jaukat bai iretzako eta bai ire anaia Pellorentzat.

Joan ziran biak barrura eta an kobaren sakon sakonean artza bat bete urregorri eukan deabruak gordeta. Orretara badinotso:

-Eutsoz, artu egizak artza eta bertako urregorri guztiak ondo eginaren pagurako. Ostera, ire anaia Pellori eroan egiok au garriko gorri au eta esan egiok oraingoz libratu egin dala. I izan azan kasuan Pello izan balitzok, arenak egin joan!

Ikusiak eta entzunak entzun ondoren, Paulok, artu deabruak emondakook eta abemarietarako bere etxean egoan.

Ateak jo, etxean sartu eta bizitako guztia konstatu eutsen etxekoei. Areik arrituta egozan, aitearenka, baina pozik.

Danak lasaitu ziran, Paulok Pellori esku bata lepora bota eta bestean garriko gorria eukala badinotso:

-I, Pello, au garriko au euretzat eman jaustak deabruak!

-Nik zertarako bear joat ba garrikoa -erantzun eutsan Pellok-, lotu egiok etxe aurreko intxaurrari!

Alantxe egin eban Paulok. Baina garrikoa intxaurrari lotuz batera, zzzzziiiiisssstttt!!, sustrai eta guzti desagertu zan a intxaur ondoa lainoetan galduz.

Danak ikaratu ziran eta badaezpada, areik urregorriak be, etxerako itxi bearrean, abadeari eroatea pentsatu eben. Eta esaten da, areik urregorri guztiak urteroko Gabon gaueko meza-estipendioa ordaintzeko erabili zirala Dimako eleizan.



Loteri kontuak

- 1.- Bi milla ta amaseigarrenan sartu giñan abenduan, ogeita bigarren eguna ere noizbait iritsi genduan. Loteri ori geienak gendun burutik ezin kenduan; diruzko jainko orren mendera bizi bai gera munduan.
- 2.- Nola telebistaz ala irratiz loterian albistea, gure zenbakirik ezin entzuna ez al zan gauza tristea ? Naiz urteroko kontua izan zailla degu sinistea: loteri ori guretzat dala ipuia edo txistea.
- 3.- Banaka batzuk badiradela ortatik aberastuak. joan zan urteko ainbat zenbaki ez daduzkagu aztuak. Aiek oroitzuz txarteletara luza genitun eskuak; uste geienak ustel ordean anai-arreba prestuak.
- 4.- Aurrez niona banaka batzuk aberastuak dirade, geientsuenak gertatzen gera olako erarik gabe. Gure barruko alaigarritzaz esango degu au ere; "Bota genduna etortzen bada konpormatuko gerade".
- 5.- Aberasteko irri ori du loteri zale dagonak, beraren bidez iritsi naia diruaren zorionak. Erregenetan izaten dira egonak; Barriro ezin egonak; sarri Eguberritako martxa jokaturako txanponak.
- 6.- Eguberriz baiño suerte obez datoztela Erregeak, edo antzeko arrazoi pranko ez gera entzun gabeak. Da azkenean eskari auxen egiñez diru zaleak: "Osasuna eman oi deigula zeru ta lurren Jabeak".
- 7.- Almeri ortan erori ziran mokadurikan aundiñak, Gurean ere an eta emen izan dirá zipriztiñak. Zorionerako izan bitez loterian eragiñak; gaiñontzekoan zakelak dabilten ziran bezin ariñak.
- 8.- Etekin berdiña ez dute beti mundu ontako ekintzak, nundikan nora joan bear dun pentsatu bear bakoitzak. Neurri batean errenditzeko komeni dira baldintzak; itxaropenik ez baldin bada ez du balio bizitzak.

9.- Loteri ori jokutzen gabiltz
ez dakit zenbat urtean,
milloika jendez banaka batzuk
egokituz suertean.
Guk nai genduken zorion orí
naiz gertatu aparteán;
itxaropenaz bat bizitzen da
eguna etorri artean.

10.- Ekintza geienak komeni dira
neurria jarritz gidari,
da uste ez dan Amabirjña
agertu leike nunnari.
Emen dirurik ez da erretzen
aldaketa da nabari;
jendea pranko ere bizi da
eskerrak loteriari.

11.- Gizarte onek berekin ditu
ainbat itxu ta ezindu,
oietako askok bizitzan zama
loteri saltzen arindu.
Badakite zer egin bear duten
da zertarako agindu?
saltzen dutena erosten dunak
obra eder bat egin du.

12.- Askok jarraitu bearko degu
orain artean bezela,
pentsa bizitza okerragoan
milloika badabiltzela.
Jauna eskertuz guztiak maite
gu zer gerade bestela?
Da aberastu diranak berriz
ondo bizi ditezela.

Irakurle, URTE BERRI ON

Txomin Garmendia




Zartu gabe ezin bizi

1.- Bat jaio ordurako
asitzen da zartzen,
munduan etorrera
negarrez artzen;
sendiaren giroa
zaiola ezartzen,
amaren bularretan
asi da indartzen,
ama irripartzen,
aita pozez lertzen,
laguntzak ekartzen,
da ez da aspertzen,
badute lamik asko
Jauna eskertzen.

2.- Urrengo etorkizuna
bataioarena,
euskerazko izen bat
bear duena;
kredoa errezatuz
egin aitormena,
ponteko aita-ama
bikote onena,
aien zoramena,
aztu ezin leikena,
umeak dutena,
txanpon leiarena,
sendiko arrantxoaz
gero ondorena.

3.- Aur zoragarri ori
ezi eta azi,
berekin ditularik
ainbeste grazi;
izan liteke Iker
da berdin Engrazi,
ango alaitasuna
nola adierazi?
Taka-taka asi,
izketak ikasi,
ainbeste itz nasi,
1o arturik kasi,
amak kantu gozoaz
1o artuarazi.

4.- Aurrak lo artutzean
gaiñontzeko lanak,
badauka zer egiña
gogo daukanak;
sarri etxez kanpotik
gertatzea diranak,
sendiaren zuntoia
zaindutzen du amak,
gu gizon geranak,
ditugun afanak,
jotzeko kanpanak,
ekintza bakanak,
ama onak bardintzen
ditu koska danak.



5.- Iñoiz gertatu arren
pozetan gaiñezka,
beti ez da izaten
jai eta pesta;
etsaia ez dago lo
ortik milla kezka,
da etorkizunari
sarritan galdezka,
mutil edo neska,
txartzea errez-ta,
bidea trabeska,
ainbat ordu extra,
ama onan lekuan
etxe txarrik ez-ta

6.- Gure bizitzak badu
ainbat nobedade,
zartutzean kontatzen
asten gerade;
urteak berriz azkar
joaten dirade,
suerte on da txarrak
guretzako daude,
ainbeste ondare,
gu izanik abe,
zorionan jabe,
eta milla lege,
zartu egiten gera
konturatu gabe.

7.- Bizitza laburra da
mundu ontarako,
argatik bizi-poza
txit besterako;
zeru urdiña or da
bere lekurako,
zer bide artu berriz
degu aukerako,
Jainkoa dalako,
ona degulako
salbamanerako,
eta zerurako,
gurutz batean illa
gure onerako.

8.- Zenbaitek dakin gisan
bertsotan baneki,
nere sail au ertengo
nuen obeki;
baiña aspaldin nabil >
emeki-emeki,
bein erori nintzan da
orain ezin jeiki,
gurdi edo aulki,
izan neike aurki,
nigatik erruki,
gogoan eduki;
gaztediak eskatzen
digula toki.

Txomin Garmendia



Neska gaztearen aldaketa (Txomin Garmendia)

EUSKERA ZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2015eko sari leiaketa.

Tolosa inguruko baserri zar baten, Josepa neska gazte polita bizi zuen bere guraso eta anaiarekin; amazapi urte ere bazitun da, amak, egiten zitun lan asko berak egiñez. Adibidez, goizeroko joan-etorria astoarekin. Tolosatik, artzailleairi esnea eramanez eta beste milla enkargu egiten zitula. Ama Kaxilda lan pranko egindakoa bere bizitzan, orain ere ez da geldi egoten noski, baiña alabatxo au bere lekua artzen asi zanetik, ama oni etorri zaio zoriona.

Josepak etzitun egiten amaren lekuko lanak bakarrik, inguruan zuen San Blas ermitako garbitasunak eta abar bere esku ziran; ango elizkizun eta jai egunetako mezetan ere zintzo ibilliko zala. ez dago esan bearrik.

Donostiko taberna batean Joseparen auzoko Luisa zegoan neska-me eta etxera etorri dan batean or bildu da Joseparekin eta or esan dio, neskame joan nai al daun Donostira? Ixil da zur gelditu da piska batean, baiña orrela dio Luisak:

-Begira, ni beste bi illabete barru ezkondu egingo naun eta nagusiak esan zidan ordezeko bat billatzeko da irekin akordatu naun.


-Ez dan idea txarra Luisa, baiña gure ama.....?

-Bai, ama. beti ama dan, baiña txitak ollalokan azoian bezela beti egon bear al dan? Gaiñera, gure nagusi orí jatorra dan oso, lan piska bat egin bear din, baiña soldatatik-aparte propinatan ere illean diru mordoska biltzen dan. Uso bandari parera etortzean tiro tira bear zaion gero!

-Orretan arrazoi dan, gaiñera gure Juanixio neskaren batekin aurki asiko dan eta orduan ni sobre izango naun.

-Orduan, baietza dan?

Gure ama negarrez asiko dan baiña, nere bizimodua nik atera bearko diñat noski, beti baserri zar ontan egon gabe.



Orduan gure nagusi orri baietza emango zionat eta beste illa-beterako edo preparatu... Kasogingo diñat eta ezaiz damutuko.

Josepak lenengo izotzaldia pasa zun, orain bigarrena palta zitzaion. Illuntze artan Luisaren berriketa zala bide, berandu samar juan zan etxera eta amak:

-Nun egon aiz neska? Amarrak ditun laister.

-Bai ama, Bordaberriko Luisa egokitu zait eta albiste bat ere eman dit, aurki ezkondu egiten dala, eta ea bere ordezeko joan nai al dedan eta baietz esan diot.

-Jesus Maria eta Jose, oraindik ume mutur zikin bat eta Donostira neskame!

Andik aurrerako ama gaixoaren negarrak eta malkoak etziran nolanaikoak. Aitak: "Orretarako jardun al gera seme-alabak azitzen?" Juanixiok: "Ondo pentsatzen jarri ezkerro arrazoi du, nik naia-go nuke etxean egongo balitz, baiña txoriak ere lumatzen diranean aita ta amaren kabitik alde egiten dute". Amak: "Bai ala izango dek, baiña, i ere asi iteke andregai billa, ni ez nauk betiko izango gero".

Ain zoriontsu bizi zan pamilira orra ekaitza etorri eta puska baterako gaiñera. Ala, Josepak erabakita zeukan zer egin, bere garaien joan zan neskame eta guraso kottaduaiari seme Juanixioren itxaropena besterik etzitzaien gelditzen.

Aldika-aldika bixitaz etortzen zan Josepa, baiña guraso aiek poz gutxi zeukaten alabarekin Juanixiorekin zeukaten itxaropen guztia.

Asteak, illak, urteak bazi-joazten, baiña guraso zintzo aiek etzuten ikusten erraiñ gazte baten etorkizunik.

Aita perira joan dan batean, amak, onez-onez noski, or egin dio egundoko sermoia semeari; aiek zaartzzen ari dirala, andre gazte bat ekarri bearko dauala esanez eta abar.



Semeak:

-Ongi diozu ama, ni ere ez nago gauza orrekin aztua, baiña gaur baserrira iñork ez du ezkondu nai; ain zuzen, zuk ondo ezagutzen dezun neska batekin izketatu nintzan lengo. igandez eta piska bat tentatu nun, eta onela galdetu zidan: "*Tu estas para el caserio no?*" Baietz esan nion eta berak: "*Pues no me gusta, el caserio*".

- Ori ere badegu? Klean ere zakurrak oiñutsik ibiltzen dituk gero...!

- Gaurko neskak orrela pentsatzen dute ama, gauza ez dago zuk uste dezun bezin errez.

- Ama Doloretakoa, entzuteko guztiak ez genizkin entzun!

Ama Kaxilda etzan ordea, errez etxitzen zun oietakoa eta pentsakor zabillen. Aita bakarrik arrapatu dun batean, onela dio amak:

- Antonio, ikusten dezu gure etxe ontan zer martxa dagon, gure seme orrek dionez, gaurko neska gazteak ez dute



baserrira ezkondu nai, eta oiliasko pare bat artuta Don Pedro apaizarena joan bear det, agian, ark billatu lezake gure baserri ontako erremedioa. Len ere badira berak egindako uztarriak

- Apaizari oillaskoak...? Len ere, nik ainbeko lepondoa badauka ark.

- Zuek gizonezkoak danok berdiñak, tabernan sartu eta musean egin ezker konforme.

- Egin zazu, egin zazu nai dezuna, zuri kontra egitea alperrik da-ta.

Denboraz zan gure Kaxilda erretore etxean ate joka oillasko parearekin. Nes-kameak leiotikz

- Zu al ziñan Kaxilda? Zer degu-ba?

- Don Pedro etxean al da?

- Bai, igo gora.

Itxaro zun bezela arrera ona egin zion Don Pedrok, Kaxildak ere esan dizkio darabizkin buruaustek eta abar.

- Gu gauz oietarako ez gera egokienak, baiña saiatuko naiz, zuen baserriak merezi du-ta. Ezer gertatzen bada, alkarren berri jakingo degu.

Itxaropentsu etxeratu zan Kaxilda erretore-etxetik, aoaltzeko zai sukaldean zauden aita-semeak ere jakiñaren gaiñean jarri zitun; da esan bearrik ez dago apalondoko errosararioa zer eskatuz izango zan.

Egun batean, Donostiko Aldundira joan bearrean gertatu zan Don Pedro, eta an Zizurkilko Praisoroko zuzendariarekin gertatu (etxe ontan ama ezkongabeak aurra izandakoak egoten dira), da esan dio besteak-beste, zer enkargu daukan berekin, eta. zuzendari onek bai azkar erantzun ere, esanez, bizkaitar ogei urte ditun neska gaztea bere semetxoarekin badagola Praisoron baserrira ezkonduko litzakena.

Besterik etzun bear Don Pedrok Kaxildarena joateko, esanez, erorketa bat izandako neska gaztea zala, da ea zeñek etzun izaten erorketarik? Pekatu ori ezkontzarekin garbitzen zala, eta askotan oietatik ertetzen zirala etxe-koandrerik onenak.

Orrela asi zan Juanixioren ezkon-bidea, eta baserri artako zorientasuna berriro.

Kaxildak onela dio sarritan: "Don Pedrok zeru-bidea ezezik, mundu ontako bideak ere erakusten ditu. Geiago bear. genituzke orrelako apaizak?."

Zuzenpe



Kristobal Kolon, Nafarroako IVn Karlos erregearen Semea izan ote zan? (XX)

Lenengo itsasaldiaren edestitik datorrena.

1.493an Loraillean 20an errege katolikuak Koloneri, Gaztelako errege maillakoak euren armarrietan eroaten ebazan Gaztelako gaztelua, Leoneko leoia ta ugarteak, mairu-arri edo armarriaren lauki edo laurden barrutietan eroaten ebala egin eutsoen, Kolonek beste gauzarik bear ote eban, bera erregearen semea zala esateko?.

1.493an Loraillaren 23an Koloneri, 1.000 urrezko doblak emon eutsoezan.

1.493an Lorailaren 26an Koloneri baimena emon eta gorte guztiaren laguntzan, berak nai gura eben ostatura lagundu eutsoen, berari laguntzen eutsoen mariñelakaz.

Eta erregeagaz zaldi gaiñean joaten ziranean, erregeak aginduta, Kolon bere albo baten eta ondorengo Juan printzea beste aldean direla joaten ziran, erregezko odola eukiten ebenai bakarrik baimenduta egin zana.

1.493an Loraillaren 28an errege katolikuak Santa Fe'ko itunean Kolonek eskatu ebazan izenburu, eskubide, izen-on, Indiako bigarren itsasotzidiaren orokorrezko kapitaiña



izatea, eta bere eskuaren ardurapean itzitako ainbeste gauza ortik aurrera sinatu ziran, eta denbora gitxian, berak egin ebazan arrigarrizko bidai orreik, Europa guztitik zabaldu ziran.

Eta egun berean erregeak, Kolon, indiazera bigarren bidaia egingo zanaren orokorrezko kapitaiña izendatu eben.

1.493ko Jorrail-Loraillaren ille onetako gertakisun bidetik argitu egiten dira, Kolon leen: "Zaldizko edo ondo-ikastako giza-semea zala, errege katolikuak eta euren inguruko gortekoak adierazi egiten eban lez".

Bigarren: "Kolonen izen berezia (KOLOM) izan zala".



Irugarren: “Argituta geratzen dala, zergaitik gero beren izena, zelan alderazi egin gura eben beren berezko izenetik, Martyr´tar Pedrok, Borromeori idatzi eutsozan eskutitzetatik”.

Eta idatzi oneik izan zirala, Kolonen izen eta jaio tokiak Jenobako artzain gazte baten izenakin nastu ebezanak.

Bai Kolon errege katolikuaren maian egonda, Kolonek lortutakoagaitik bekaizkor ziran gizonak maltzurtasunez, arrigarrizko egikari orrein garrantzi ta ospeak beratzeko, an egon ziranen arteko batek aurreratuta egin eutsozan itanduakaz: “Ia berak sinesten ba eban, beren bidai ori utsegite baten amaitu bazan, beste baten batek al izango zala bidai ori zorionez amaitzeko”.

Kolonek, beren asarrea barruan gordeta eta arrautz bat beren eskuetan artuta, au esan eutsen danari dei eginda, “arrautzea zutunik ipintea lez dala”.

Danak ipini ziran arrautzea zutik ipinten, baiña iñork ezin eben lortu, eta berak arrautzea artuta mutur baten txaka-txaka jota apurtu barik, zutik ipinita, besteak olan egitea erreza zala

esan eutsoen, eta Kolonen erantzuna: “erreza zala egiteko gauza ori, baiña zuetatik iñork ez dala ezertarako gogoratu”, eta gauza guztiekaz alan sortzen dala lenengoa agertu arte, esan ondoren, danak ao zabalik itzi eban.

Gaztela eta Portugaleko erregen artean be bardin sortu zan, mundu onetan agertutako lur zabalagaitik be asi ziralako eztabaidak, Aita Santua bien artean agintari nagusi lez ezarrita eurak egin eben ongunde bidez, agertzen ziran lurak erdibanatzeko izanda, Portugalek Jorraillaren 5ean bere gortekoak Gaztelara bialduta zalaketa bidez bereganatu egin gura ebazalako lur orreik.

Gaztelako erregeak irabazi eutson baiña, egiune aretan Portugaleri Kanariaseko lur-gerri edo eguerdi-lerrotik bealderantza Afrikako lurraldeak bezela egertzen ziranak egokitzen zaiolako bakarrik.

Eta erregearen aurkaldi oneik argitzeko, Aita Santuaren erabagi billa joan ziran.

1.493an Iraillaren 5ean Kolonen lenengo ta bigarren osterata tartean, errege katolikuak Kolontar Kristobaleri idatzi eutsoen eskutitzan esaten eutsoen, beren bidaie-tan izarlari on bat eroan bear eballa, Martxenatar Antonioren izena emonda.

Erregeak gero Martxenatar Antonio lekaideari idatzi eutsoen eskutitzan, Kolonegaz joanda Indiasetan denboraldi bat egiela aginduz, antolamen on bategaz ango giza-semeak erlijio-katoliko oiñarrietan bideratzeko. Erregeak sinismen aundia euki ebelako Martxenaren erlijiozko sinismen sakon eta eragilletasun garbi ta argiagaz.

Emen gaiñera esan bear da, Kolon Rabidara joan zanetik, franziz-kotarrak sekula ez eutsoela babesbarik itzi, bitarte orreitan Martxenaren eskua argi ikusita, bera izan zalako ikerlarien talde guztietatik, Koloneri siñisten eutson gizon bakarra.

Gaztelanian 1.485-1.492ko urte bitarteko agirietan Koloneri beti deitu eutsoen “Colomo”, Portugaleko Pinatar Ruy albistariak “Colombo”, Portugaleko In Juan erregearen Barrostar albistariak “Colom” esaten dautso, eta Fernando erregeak “Colón”.

Baiña, Kolonen izena edestiaren iragaitzean, batzuetan asmo osoagaz eta beste batzutan naigabeko aldateak euki ba-zituzen, Granadaren santa Fe’ko erri barrian, eleiztar, errege ta Kolonen artean, bere Mallorkako jaioterri ta Aragoi-Nafartar izatasunak ixiltzeko egin eben ituneko erabagi orren bitartez, Kolonen izatasunezko gaiakin ibiltzen ziran edestilariak naastuten ziralako izaten zala jakin bear dogu, eta esker aundiak emon Berd ta Martorelltar Gabrieleri, gauzaren berezitasunak alango zeaztasunezko ikerketa lan bikain orrekin euren lekuetan ezarrita, danok zentzu apur-bategaz bizi gindezan, argitzen dabezelako Kolonen izate ta eginkizunak.

Bigarren itsasaldia.

1.493an Iraillaren 24an urten eban Indiazera bigarren ekitaldia, Kanariaseko ugartetara bideratuta eta Gomerako kaian lenengo geraldia eginda, itxasontziak egurra, ura, txal edo bigantza, auntz, bildotx, zerri-me ta zerri-ordotzak itxasontziratu eta lur aietan lantdatzeko laranja edo urre-sagar, limoi-ondo edo zitroi-on-

do, meloi, barazki edo ta ortuarien aziak artuta, apintzen asi ziran Gomerako kaitik urten eta Burdiñeko ugartera joateko.

1.493ko Urrillaren 13an urten eben Indiasera joateko Burdiñeko ugartetik itsas zabalera.

1.493ko Azaroaren 3an agertu jakien ugarte aundi bat, Kolonek Domekea izateagaitik Dominika izendu ebena, ta berton ez ebalako babes-lekurik euki aingurak⁽¹⁾ botateko, ugarte oneri, euren itxasontzi kapitaiñak euren izena “Marigalante” ipini ondoren, aurrera joan ziran beste ugarte bat aurkitu arte.

Urrengo aurkitu eben ugarteari “Guadalupe” izena ipini ondoren, Kolonek itxaron egin bear izan eban, berak bialdutako Markez’tar Diego itxasontzi baten kapitaiña, galdu egin zalako ugarte orren basartean, eta agertu zanean kapitaiñ onen kondairan: “aurkitu ebazan leiñuen janari bitartez, giza-jaleak zirala esan eban”, ta eurengeandik andrazko batzuk askatu ondoren, aurkitu ebazan “anana” edo lur-beroaren aldeko “piña” ta beste ale-mota batzuk be ekarri ebazan.

Kolon, Dominikako ugartetatik, obo-erdi edo biribil-erdi baten antzera egon ziran ugartetik ugartera ibili zan, Dominika edo espainolaren ugartera ostera eldu arte.

Guadaluperen izena ipini eutson ugartearen ostetik, ta Bartzelonako Montserrat’tar Santa Mariaren izena ipinitako ugarteari, urrengoari Antziñako Santa Mariaren izena ipini eutson Sebillako Eleiz-Nagusaren oroimenez, Kolon ta taldekideak berton otoi egiten ebalako Indiasera urten aurretik, eta bertan eraikiko eben gero jaun-obi eder bat, Kolonen gorputza illobiratzeko.

Antziñako Santa Maria eta Puerto Rikoren bitarteko ugarteari ipini eutsezan izenak: San Martin, San Kristobal, San Jorje, San Bartolome, Santo Tomas, San Anastasio, Santa Kruz, Graciosa, eta Amaika Milla Neska-Garbi edo Birjiñarenak izan ziran.

1.493an Azaroaren 19an odolezko eztabaida batzuk eukinda bertokoakin, gaur “Puerto Rico” lez ezagutu egiten dan Bateatzaille San Juanen ugartera eldu ziran, eta uragaz, ta bear eben janariekaz ondo ornitu ondoren, 22an urten eben Dominika edo espainolaren ugarterantza, eta bertora elduta, itxasontziak aurrera egin eben Gabonetako Uria⁽²⁾ eldu arte.

1.493an azaroaren 27an eldu ziran “Gabonetako Uria” eta itxasontzitik urten barik aurrera joateko itxaropenean egon ziralako, Gauakanagari deritson ugarteko erregearen loba bat beste bertoko batzuekin urreratu jakiezan ongi etorriak emoten, eta bien bitartez esan, Guakanagari erre-

(1) Aingura edo arbak = anclas. (2) Gabonetako Uria = Villa de la Navidad.



gea zaurituta egon zala beste ugarteko Kaonabota Mayreni jauntxoaren aurka egin eban borrokan, eta zaurituak ta il batzuk euki arren, bakez eta ondo aurkitzen zirala an egon ziranak.

Itxasontzien aingura edo arba urperatuta, lonbardazko tiro batzuk bota ebezan erantzuna artzeko, eta iñork ez ebalako erantzunik emoten, Kolonek, txalupa bat bialdu eban, an zer gertatzen zan jakiteko, eta ez eben aurkitu besterik, erretako ondarrak baiño.

Eurak ango triskantza ikusten egon ziran bitartean, bertoko batzuk zuaitzen ostetatik ostonduka ibiltzen zirala ikusi ebezan, eta eurengana joanda jakin eben, zelan eurak juan zirenean, berton geratu ziranen artean borrokan asita, batzuk il zirala, beste batzuk euren kontura urre gorriaren billa joan zirala, eta geroago Diego kapitaiñak nai bere laguntza euki arren, Kaonabo beste ugarteko jauntxoaren erasoari eutsi-ezinik il zala, eta ondore erre ebela ia ugarte guztia.

Kolonek, ondamenezko triskantza au ikusi ondoren, beste erri bat eraikitzea agindu eban, Dominika edo espainolaren ugarteko ipar-ekialdean IIsabelen omenez, eta egin eben erri oso ori, arri-landuakaz egitea agindu eban.

Kolonek ugarte aretan zer egon zan jakiteko, Ojedatar Alonso bialdu eban beste amabost lagunekin izkilluakaz ondo tresnatuta, ia zer aurkitzen eban ugarteko barruetatik, eta erreka baster batera eldu ziranean arri-koskorren antzera, urre-gorri asko aurkitu eban lez, bereala asmatu eben urbillean garrantzi aundiko miak aurkituko ebezala, eta meaztegi orreik billaka asita aurkitu ezinean, 15 egun barru, osteraitzuli ziran Kolonengana, urrezko barri areik emonaz.

1.494ko Otsaillaren 2an Kolonek, 12 itxasontzi bialdu ebazan peninsula onetara Torrestar Antonioren agindutara, erregearentzako oar-idazti batekin, eta erregeari adierazi an aurkitu zituzen urre-gorritzko arri koskorren meaztegiak aurkitzeko egingo ebezanak, eta zelango antolaketak egingo ebazan babestuta egoteko ango azterkuntzak egiten egon ziran bitartean.

Eta emen nun agertzen dan berez, Kolonek erregeakaz euki eban senidetasuna, idatzi ebazan lenengo lerroetan: "encomendareis en Sus Altezas como a Rey y Reina mis Señores naturales" esaten dabenean, askeneko iru berba oietan esaten dabelako, zelangoko senidetasuna euki eben Aragoi eta Gaztelako errege-erregiñak Lur Gorri edo Terra Rubrako Kolon Amiralarekin.

Kolonek emendik aurrera eztabaida gogorrak euingo zituzen, agindupean euki ebazan batzuen bekaizkeri bitartez, ta ori kontuan artuta bera ugartetatik gudari talde gogor bategaz joan zanean azterkari, bere anai Don Diego agindupean itzi eban Isabelaren erria.

1.494ko Epaillaren 12an urten eban Kolonek bere gudari taldeagaz azterkari, eta ibar aberats bateri "Vega Real"en izena ipini ondoren, Zibao mendi katera joan ziran azterka, eta urre gorriaren ainbat agerpide ikusita, erreka inguru baten gaztelu bat eraikitea agindu eban, gero Santo Tomasen izena ipini eutsonai, eta 50 gudari Margaritetar Pedoren agindupean ipini ondoren, eurak Epaillako 29an Isabelaren errira ugartera joan ziran.

1.494an Epaillaren 19an Kolonek Kubara elduta, len berak Alfa ta Omegako izenakaz deitutako lur muturrera joan zan, eta ugartetik ugartera ibili zanean, Kolonek itxasontzian eroandako indio batek, an inguruan urre gorri asko eukiten eban Jaimai-ka deitzen zan ugarte bat egoala esan eutson. Berri ori emon eutson indio orrek, Kolontar Diegoren izena ipinita euki eban.



1.494an Jorraillaren 24an Kolonek itsasora urten eban iru itxasontzirekin, Isabela ugarte bere anai Diego, Boiltar Bernardo, Ernandeztar Pedro, Koronel, Santzez ta Karbajaltar Alonso, eta Juan de Luxanen agindutara itzi ondoren, Kubarantza joan zan, ia Kan Aundia aurkitzen eban.

Emen sukar gaitzaldiekin ainbat gizon il jakiezan.

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2.015'eko urtean Epailla'ren 21'ean

EUSKERAZALEAK

Urteroko Batzar Nagusia

Martxoaren 30ean egunean
EUSKERAZALEAK
alkarteak urteroko
Batzar Nagusia egingo dau
Lenengo deia: 18:30ean eta
Bigarren deia 19:00etan

GAIAK

Aurkezpena: Zuzendariak
Aurreko Batzar Nagusia Akta: Pablo Atutxa
Urteko kontuak: Diruzaiñak
Urteko ekintzak: Zuzendariak
Batzordekide barriak, balegoz
Erregoak eta eskariak

ZUZENDARIAK

Asamblea General Anual

El 30 de Marzo celebrará
la Asociación
EUSKERAZALEAK
su Asamblea General anual
Primera convocatoria 18:30 tarde
Segunda convocatoria 19:00 tarde

ORDEN DEL DÍA

Presentación: El Presidente
Lectura del acta del año anterior: Pablo Atutxa
Cuentas anuales: La Tesorera
Actividades anuales: El Presidente
Nuevos miembros de la Junta si los hubiere
Ruegos y preguntas

EL PRESIDENTE

ESKERRIK ASKO ETORTZEAGAITIK EUSKERAZALEAK

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar
..... kалан (auzoan..... zenbakian
..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko (ogeitamabost euro) kontu onetan:

Euskerazaleak, Bilbao bizkaia kutxa : ES28 2095 0000 74 2000089615 zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN “ZER”. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

BIRJINA MAITE

Birjina maite lotan dago
zure semetxo laztana,
seaskatxoan ipiniozu
gure biotzen kuttunai.

Ongi, bai, ongi igaro ditzan
gauak eta egunak.
Poliki, poliki eragiozu
egin dezan lo ona.

Otzaren otzez lasto artea
gorde du gorputz gurena,
amak musuka bero nai luke
arkume txuri otzana.

Maitasun eztiz eskaintzen dizut
Maiteñoa, nik dedana,
Biotz bero bat txirpil goxoaz
Egiteko lo ona.

Zeru goi goitik gugana dator
gure Jesus laztana,
lasterka lasterka goazen, kristauok,
gure jaunarengana.